

Aurrerapen operatibo berriak Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Elektronikoaren Ereduan

- European ePractice Newsletter berripaperak Eusko Jaurlaritzak kontratazio elektronikoaren inguruan egindako jardueren berri eman du
- Alerta goiztiarrak eta beste informazio jarduerak, SPRIren Sistema Metaposta kontratazioari buruz abiarazitakoak
- Kontratazio elektronikoaren erabiltzaileei laguntzeko jarduera %33 handituzen 2008. urtean





Kontratisten Erregistro Ofizialaren bertsio telematiko berriari esker, administrazioaren dokumentazioa eskaneatuta bidali daiteke, eskaerarekin batera

Dokumentuak eranstean ez dira postaz bidali behar, eta Erregistroko enpresa baten informazio guztia kontsultatzeko eta izen-ematea emateko, aldatzeko edo berritzeko aukera ere ematen du bertsio honek

Eusko Jaurlaritzak aplikazio berriaren beste bertsio bat kaleratu du, eta honako hau egiteko aukera ematen du:

- Enpresari buruzko informazio guztia kontsultatzea Kontratisten Erregistro Ofizialean.
- Enpresa Erregistroan altan emateko beharrezko dokumentuak formulario elektronikoki bidez betetzea, aurrez emandako edozein informazio aldatzeko edo inskripzioa berritzeko.
- Administrazio-dokumentazioa eskaneatuta bidaltzea, eskaerarekin batera. Horrela, ez da beharrezkoa administrazio-dokumentazioa postaz bidaltzea.

- Erregistroak lehenetsua emango die Internet bidez egiten diren eskaerei.

Enpresek den-dena elektronikoki kudeatu ahal izango dituzte administrazio-dokumentu guztiak Erregistroarekin

Hemendik aurrera, Interneti buruzko aplikazio berria **Kontratisten Erregistro Ofizialarekin** erabiltzen duten enpresek **Erregistroarekin zerikusia duten dokumentu**

guztiak elektronikoki kudeatu ahal izango dituzte administrazioarekin; izan ere, Erregistroko teknikariek egindako jakinarazpen elektronikoak jaso ditzakete eta izapideak Eusko Jaurlaritzaren www.euskadi.net web orrialdeko "Nire kudeaketak" atalaren bidez kudeatu.

Adierazi dugun moduan, **administrazio-dokumentuak eskaneatuta bidali daitezke, eskaerarekin batera. Horrela, ez da beharrezkoa administrazio-dokumentazioa postaz bidaltzea.**

Aplikaziorako sarbidea "Kontratisten Erregistro Ofizialaren" atalean dago, helbide hauen hasierako orrian: www.contratacion.info eta www.euskadi.net/contratacion.

Albisteak

Dagoeneko 13 kontratazio-espeditu kudeatu dira Lizitazio Elektronikoko Sistemaren 3.01 bertsio berriaren bidez

Lizitazio Elektronikoko Sistemaren 3.01 bertsioa abian hasi zenetik 13 kontratazio elektronikoko espeditu argitaratu dira dagoeneko sistema berri horrekin.

Bertsio berria guztiz egokituta dago Sektore Publikoaren Lege berrira; beraz, bestelako arteen:

- **3 irekiera ekitaldi ahalbideratzeko** aukera ematen du, bananduta, **A, B, eta C gutun-azaletarako** irekierarako egunak Kontratazio Organoak hauta ditzake.
- Halaber, Lege berrian aurreikusitako **behin-behineko eta behin betiko esleipenak** egiteko aukera ematen da.

Horrez gain, **aplikazioaren kudeaketa sinplifikatu egin da, espedituaren altari** dagokionez, bereziki, eta baita **irekiera ekitaldiko zereginetan** ere; hori dela eta, kontratazio teknikariek bertsio berriarekin erosoago lan egin ahal izango dute.

European ePractice Newsletter berripaperak Eusko Jaurlaritzak kontratazio elektronikoen inguruan egindako jardueren berri eman du



ePractice eta haren webgunea www.ePractice.eu Europako Batzordeak bultzatutako ekimenak dira. Horrela, xedea da eAdministrazioko eta Informazioaren Gizarteko profesionalak zerbitzuak eskaintzea.

Besteak beste, ePracticek European ePractice Newsletter berripaper elektronikoa kudeatzen du, eAdministraziari buruzko Europako azken nobedadeak sustatzen dituena.

"Basque Governments eProcurement System (Spain, 2005-2009)" izenburupean, 2009ko ekainaren 9ko European ePractice Newsletter berripaperaren 282. zenbakian, Eusko Jaurlaritzak kontratazio

Europako Batzordeak argitaratutako Europako eAdministraziari buruzko berripaperak Eusko Jaurlaritzak 2004/18/EB Arauak eskatutako kontratazio elektronikoko moduei emandako bultzada nabarmendu du

elektronikoen arloan antolatutako jardueren berri eman zuen.

ePracticek emandako informazioa <http://www.epractice.eu/en/cases/bgeps> helbidean eskura daiteke eta Eusko Jaurlaritzak Europako Parlamentuko eta Batzordeko 2004/18/EB Arauak eskatutako kontratazio elektronikoko moduak bultzatzeko egindako ahaleginen berri eman zuen.

Gogoratu behar dugu, eGobernari buruzko Europako Batzordearen 4. Ministro Konferentzia zela eta, Europako Batasunak "eAdministrazioaren Jardunbide Ona" (ePractice.eu Good Practice label for 2007) deritzon aitortpena eman ziola Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikoko Ereduari.

Kopurua: 3.828

Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Publiko Elektronikoen Eredua ezartzeko jardueri esker, **% 18 igo da Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emandako enpresa kopurua, eta guztira 3.828 enpresa dira dagoeneko.**

Jakin dakigunez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen arabera Erregistroan izena emateak enpresek interesa duten kontratazio-espeditu guztietan duten gaitasunari buruzko dokumentazioaren aurkezpen orokorra egitea salbuesten du.

Aurrerantzean enpresek erregistroaren aplikazio berria erabili ahal izango dute. Funtzio berrien artean nabarmendu behar dira izena.

Aplikaziorako sarbidea "Kontratisten Erregistro Ofizialean" atalean dago, helbide hauen hasierako orrian: www.contratacion.info eta www.euskadi.net/contratacion.



"Euskadiko Kontratazio Publikoa" bloga sortu da

2005eko urritik Eusko Jaurlaritzak esfortzu handia egiten ari da, gaur egun, Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean dauden 3.800 enpresa baino gehiagoren artean kontratazio elektronikoa zabaltzeko asmoz.

Kontratazio elektronikoen arautegi-lege garapena etengabe bultzatzea komenigarria da Eusko Jaurlaritzako mailan, Europar Batasuneko mailan izandako aldaketek

erantzuteko eta baita azkeneko urteetan jasotako eskarmentua baliatzeko asmoz.

Etorkizuneko jarduerak zabaltze aldera, Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikoko Idazkaritza Teknikoak "Euskadiko Kontratazio Publikoa" izeneko bloga jarri du abian, eta Interneteko helbide honetan sar daiteke:

<http://contratacionpublicaelectronica.blogspot.com>

Pertsona
Emilio Castrillejo

Emilio Castrillejo Europako Batzordeko kidea eta han kontratazio elektronikoz eta ePractice ekimenaren dinamizazioaz arduratzen da. Kontratazio Publiko Elektronikoa buruzko nazioarteko bi mintegietan parte hartu du, 2004tik Eusko Jaurlaritzak eta IEAP-CERek antolatutakoak.





Alerta goiztiarrak eta beste informazio jarduerak, SPRIren Sistema Metaposta kontratazioari buruz abiarazitakoak enpresei laguntzeko asmoz

Eusko Jaurlaritza Europako OMC-PTP proiektuaren osoko bilkuran parte hartzea gonbidatu zuten, administrazio-kontratazioa bultzatzea helburu duena berrikuntzaren aldean, bereziki ETEen artean. Bertan ondorioztatutakoa abian jarri izan du "Metaposta" izeneko espedientea kontratatzerakoan

SPRIren nahia betetze aldera, kontratazio elektronikoko prozedurak bere kudeaketan barne hartzea hain zuzen, 2008ko maiatzetik, Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikoko Idazkaritza SPRIrekin (Euskadiko Industria Sustatzeko eta birmoldatzeko Sozietatea, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren barruan dagoen sozietate publikoa) lankidetzan ari da Metaposta Sistema abiaraztearekin lotutako kontratazio espedienteak garatzen; Metaposta Sistema Euskadi Planaren barruko proiektu estrategikoa da, Informazioaren Gizartean (PESI 2010).

2005eko urrian jarduten hasi zenetik, Eusko Jaurlaritza kontratazio elektronikoen eremuan lanean aitzindaria izan da estatu mailan, eta Euzko Batasunean "eAdministrazioaren Jardunbide Ona" gisa aitortza lortu zuen (ePractice.eu Good Practice label for 2007). Aitorpen hori dela eta, Eusko Jaurlaritza europar foroetan parte hartzea gonbidatu dute; nola kontratazio elektronikari lotutako foroetan, hala legediak berak administrazio kontratazio arloan duen bilakaera lotutako foroetan.

Hala, urte hasieran Eusko Jaurlaritza OMC-PTP (Open Method of Coordination - Public technology procurement) Europako proiektuko udalbatzan parte hartzea gonbidatu zuten. Proiektu horren helburua berrikuntza bultzatzea da, administrazio

kontratazioaren bitartez. Proiektuaren helburua da mekanismoak bilatzea, europako zuzentze-arauekin talka egin gabe administrazioen kontratazio handiagoa eragin dezan horietara, berrikuntzaren mesedetan, batez ere ETEetatik datozenak.

Kontratazio berritzailearen aldeko mekanismoak bilatzea, batez ere ETEetatik datozenak, oso gai polemikoa da eta horren inguruko eztabaida urteetan zehar luzatu da. Adibidez, Europar Batzordeko lehendakaritza frantsesaren aldetan gobernu frantsesaren helburua SME act" (ETEen aldeko zuzendaritza) eratzea izan zen, administrazio publikoaren merkaturako hainbat portzentaje Pyme-entzat gordetzeko aukera izateko, besteak beste.

Frantziako Gobernuaren nahiak ez du amaiera ona izan. Izan ere, besteak beste, Frantziako Senatuak prestatutako "SME act" lege zirriborroa legez kanpoko dela adierazi du Frantziako Gobernuak. Frantziako Estatu Kontseiluaren iritziz, ETEei mesede egiten dien kontratazio sustatzeko edozein ahalegin berdintasun printzipioari aurka egiten dio ("liberté, égalité, fraternité" printzipioa gogoratu). Hain zuzen, enpresa txiki, ertain eta handien arteko berdintasun printzipio horrek "SME act" legeari oztipoak jartzen dizkio Europako Batzordean.

Arlo horretako esfortzuak ez dira arrotzak Eusko Jaurlaritzarentzat. Hala, Kontratazio

Elektronikoaren Eredua prestatzen hasi zenean aldeko mekanismoak bilatzen saiatu zen, kasu honetan, kontratazio elektronikoen aldekoak. Ez zuen emaitzarik eman ordea, edozein trataera berdintasunaren aurka doalako administrazio kontratazioan.

Osagarri gisa, "SME acts"-ak baldin badaude munduko beste tokietan, Kalifornia Estatuko Australian Government Endorsed Supplier" edo "Small Business Certification" lotuta daudenak adibidez, gure ezagutzan, mekanisko horiek zenbateko txikiagoko espedienteak kontratatzeke administrazio eskaeren sinplifikaziora mugatzen ohi dira.

OMC-PTP (Open Method of Coordination - Public Technology Procurement) Europar proiektuaren xedeetara bueltatuz, proiektu-batzak erabaki zuen kontratazioa europar zuzendaritzak aldatzea ezinezkoa zela eta jardura posibleetako bat honako hau zela: "Administrazio publikoaren kontratu helburuei dagokion informazioa merkatuari ahalik eta azkarren helaraztea".

Hau da, Europako administrazio publikoek ahalik eta informazio gehiena ematea administrazio publikoaren kontratu helburua finkoa zen unetik, berrikuntza bultzatze aldera. Modu horretara, enpresak, ETEak bereziki, informatuta egongo liriteke eta



denborarekin antolatu eta prestatu ahal izango lituzkete beren proposamenak. Hala, uste zen eguneroko negozio jarduerak eta proposamen prestaketan batera eraman ahal izango liriatekeela, denbora nahikoarekin.

Hauexek izan dira Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Elektronikoko Idazkaritza eta SPRI Metaposta sistemari lotutako kontratazioa prestatzerakoan jarraitutako helburuak. Hala, SPRI sozietate publiko dela aintzat hartuta, eta administrazio kontratazioan askatasun handiagoa duela, Metapostaren publizitateari eta marketinari lotutako kontratazio espedienteen administrazio kudeaketa sinplifikatu zen. Hartutako erabakiak honako hauek izan ziren:

- Metapostarako aurreikusitako irudi, publizitate eta web garapena 3 espediente ezberdin sortzea, enpresa egitura txikiagoentzako eskuragarriagoak izan zitezten.
- Kaudimen teknikoko baldintzak txikitzea, 1. eta 3. espedienteetara dagokienez; ez da sailkapen berezirik eskatuko enpresen sailkapen sistemari dagokienez.
- Eskaintza bakoitzean proposamen bat baino gehiago onartzea (hainbat proposamen tekniko), enpresa lizitatzailerak aukera ezberdinak eskaini ditzaten.

- Paperezko, ohizko bidea, onartzea proposamenak jasotzeko Euskadiko Kontratisten Erregistroan izenik eman ez duten enpresa txikiek ere lehia parte hartu dezaten.
- Amaitzeko, eta batez ere, ahal diren alerta goiztiar gehien igortzea, merkatuari ahalik eta aurrerapen gehienarekin informatzeko.

2008ko maiatzean alerta goiztiarrak abiarazten hasi ziren (ikus www.euskadi.net/contratacion testigantza edo bere ordezkoa: www.contratacion.info), hasiera batean sistema informatikoari kontratazioari dagokionez, eta, gero, Metaposta sistemaren publizitate eta marketinari lotutako elementuei buruz.

Laburbilduz, burututako lanak honako hauek izan ziren:

- Posta elektronikoa Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emandako enpresa guztietara bidaltzea (3.800), beren helbide elektronikoa ematea onartu dutenak, baita kontratazio elektronikoko prestakuntza ikastaroetan parte hartu duten guztiei ere (gaur egun 1.000 pertsonak jaso dute prestakuntza). Gaur egun 3.000 posta helbide baino gehiago daude, eta 129 helbide elektroniko, publizitate enpresenak.


- SPRIren Euskadi Innova programaren aldirakari elektronikoa bidaltzea.
- Berriak eta alerta goiztiarren laburpenak argitaratzea Kontratazio Publiko Elektronikoko Ereduaren web bidez (ikus www.euskadi.net/contratacion, edo bere ordezkoa: www.contratacion.info).
- Kontratazio Publiko Elektronikoko Ereduaren webetik RSS fluxu eskaintzaren bidez eta web instituzionaletik bertatik: www.euskadi.net
- Metaposta blogaren bidez (<http://metaposta.wordpress.com>), 2008ko abenduaren 1etik funtzionatzen duena.

Laburbilduz, 2008ko irailaren hasieratik gaur arte 14 komunikazio-jarduerak egin dira, **plegu teknikoaren zirriborroak eskura jartzeaz gain**, SPRIri eska dakizkikeen epe legalen aurrerapen hauekin:

- **1. espediente** (irudi korporatiboa): **6 hilabeteko** aurrerapena.
- **2. espediente** (marketina eta publizitatea): **12 hilabete** baino gehiagoko aurrerapena.
- **3. espediente** (web garapenak): **7 hilabeteko** aurrerapena.

Kontratazio elektronikoen erabiltzaileei laguntzeko jarduerak %33 goratu zen 2008. urtean

Gorabehera eta kontsulta kopurua Kontratisten Erregistro Ofizialaren aplikazio telematikoen berriaren 1. eta 2. bertsioak kaleratu direlako goratu da



Eusko Jaurlaritzak 2006. urtean kontratazio elektronikoen inguruko jarduerak hastean laguntza-zentro bat ezarri zuen erabiltzaileei arreta emateko.

"Zuzenean" deritzen zerbitzuak Eusko Jaurlaritzaren Hiritarrentzako Arreta Zerbitzuak kontsultak egiteko aukera ematen du, telefono edo posta elektronikoen bidez.

Honako hau da 2008ko erabiltzaileentzako laguntza zentroaren jardueraren laburpena:

- **Jorratutako gorabehera eta kontsulta kopuru osoa: 752**, honela banakatuta:
 - Kontsultak: 300.
 - Gorabeherak: 452.
- **Jorratutako gorabehera eta kontsultak nabarmen igo dira (% + 34,5) 2008/2007 aldian**; hona hemen xehatuta:
 - **Kontsulten** ehunekoen igoera: **+121%**.
 - Gorabeherak: **+8%**.

Praktikan, izandako gorabeheren gorakuntza, Kontratisten Erregistro Ofizialaren telematika aplikazio berriaren 1. eta 2. bertsioak kaleratu direlako izan da. Lizentziatuen aplikazioari buruzko intzidentzien igoera zentzudunagoa izan da (+ %7,8), kontratazio elektronikorako prestatzen ari diren enpresen kopurua igo dela adieraziz.

Komeni da administrazio-kontratazioan parte hartzen duten pertsonen sinadura elektronikoko ziurtagirien iraungitze-datari begiratzea



Izenperen sinadura elektronikoko ziurtagiriek, prozedura elektronikoen bidez administrazio-kontratazioa egiten duten pertsonen emandakoak, iraungitze-epaia dute, eta kasu askotan hemendik gutxira beteko da.

Horregatik, enpresei nahiz funtzionarioei beren ziurtagirien iraungitze-datari

begiratzeko gomendatzen diegu.

Ziurtagiria hemendik gutxira iraugiko bada, komeni da Izenperen web orrialdea kontsultatzea (www.izenpe.com). Han, "Ziurtagiri digitalak" atalean "Kudeaketa ziurtagiri digitalak" atalari buruzko informazioa ikus daiteke, eta berritze prozedura nola egiten den adierazten da.



14.000 bideotik gora beheratu dira "Youtube"-n , Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikoaren prestakuntzari dagokionez

Lizitazio Elektronikoko Sistemaren 3.01 bertsioarekin 2007an argitaratutako bideo horien edukia berri da, kontratazio elektroniko publikoan parte hartzen dutenak gaitzea helburuz

Kontratazio Publiko Elektronikoko Sistema abian jartzearekin bat, Eusko Jaurlaritzak prestakuntza osoa eskaintzen du.

2007. urtean **zuzeneko prestakuntza-ikastaro osoa grabatu zuten eta eskuragarri dago Youtuben (www.youtube.com)** , 28 bideo txikiren bitartez. Enpresa lizitatzaleek bideo horiek asko erabiltzen dituzte; izan ere, gaur egun **bideo horietatik 14.000 beheratze baino gehiago egin dira.**

Lizitazio Elektronikoko Sistemaren 3.01 bertsioa abian dela-eta ikastaroen edukia berritzeari ekin da.

Bideoak eskuratzeko, komeni da bilaketa-menuan ("search") hitz gako hauetako batzuk sartzea:

- Kontratazio elektronikoa.
- Eusko Jaurlaritzaren kontratazio elektronikoa.

Eusko Jaurlaritzak kontratazio elektronikoaren alderdi desberdinei buruzko 22 katalogo argitaratu ditu dagoeneko

Azken lau urte hauetan, Eusko Jaurlaritza esfortzu handia egiten ari da, gaur egun, Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emana duten 3.800 enpresa baino gehiagoren artean kontratazio elektronikoa zabaltzeko.

Jardueretako bat **kontratazio elektronikoaren zenbait alderdi azaltzen dituzten 22 katalogo** baino gehiago argitaratzea izan da.

Material guztiak Kontratazio Publiko Elektronikoko Ereduaren web orrialdearen "**Deskargatu dokumentazioa**" atalean eskura daitezke:

- www.euskadi.net/contratacion
- www.contratacion.info



SPRIk elektronikoki soilik eskaini zen kontratazio-espeditente berri bat argitaratu zuen

SPRIk Lizitazio Elektronikoko espeditente berri bat atera zuen Aholkularitza Zerbitzuak kontratatuzeko, Informazioaren Gizarteko Euskadi Planaren Idazkaritza Teknikoari laguntzeko (PESI 2010: Euskadiko Agenda Digitala).

Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeak eta hiritarrak Zerbitzu Publikoak elektronikoko eskuratzeko ekainaren 11/2007 Legeak eskaintako aukeren arabera, SPRI-tek **espeditente honetara bakarrik elektronikoki lizitatzeko aukera eman zuen.**

Zenbakiak

137_espeditente atera dira:

110_milioi euroko aurrekontua du lizitazioak

9_sailek atera dituzte kontratazio elektronikoko espeditenteak 2006. eta 2007. urteen artean:

- Ogasun eta Herri Administrazio Saila
- Nekazaritza, Elikadura eta Arrantza Saila
- Barne Saila
- Etxebizitza eta Gizarte Gaien Saila
- Gobernuko lehendakariordetza
- Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzza Saila
- Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila
- Kultura Saila
- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila

8_erakunde autonomoek edo erakunde publikoek kontratazio elektronikoko espeditenteak abiarazi dituzte 2006an, 2007an eta 2008an:

- Osakidetza
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE)
- Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia
- Osalan
- HAEE
- Eustat
- EJIE
- SPRI

27_informazio-jardunaldi garatu dira:


1.324_enpresek informazio-jardunaldietan parte hartu dute

1.100_pertsonak parte hartu dute informazio-jardunaldietan

Onura eta zerbitzu motak, lizitazio elektronikoko bidez kontratatutako direnak 2006-2008 aldian:

Aholkularitza-zerbitzuak, auditoretza-zerbitzuak, azterketa ekonomikoak eta estatistikoak, aseguruak, bulegoko altzariak, segurtasun-sistemak, itzulpen-zerbitzuak, publizitatea, garbiketa-zerbitzuak, bidaiak antolatzen dituzten zerbitzuak, ekitaldiak antolatzen dituzten zerbitzuak, argitalpenak, turismo-gidak, soroslea kontratatzen Polizia Akademiarako, fotokopiagailuak mantentzea, osasun-materiala, sendagaiak, zerbitzari informatikoak, aplikazio informatikoak, prestakuntza-ikastaroak ematea, eraikinak handitzeko obrak, langileak hautatzea, prestatzea, energia elektrikoa hornitzea eta sistema elektrikoak eta kontrol-sistemak mantentzea.

Objektua



Lizitazio Elektronikoko Sistemaren 3.01 bertsio berria konfiguratzeko tresna

Lizitazio Elektronikoko Sistemak ordenagailu pertsonal bat elektronikoki lizitzatzeko ongi konfiguraturata dagoen egiaztatzen duen tresna bat du, eta behar bezala ez bada horretarako beharrezkoak diren zenbait osagai instalatzen ditu.

Funtzionalitate honek ordenagailuaren konfigurazioa egokia dela egiaztatzen aukera ematen du, elektronikoki lizitzatzeko aukera izateko eta horretarako behar diren osagai jakin batzuk deskargatzeko eta instalatzeko.

Konfiguratzeko tresnak ea honako elementu hauek ordenagailuan ote dauden begiratu eta ongi dabilzaten aztertzen du:

- Sinadura ezagutzeko softwarea.
- Sun-en Java makina birtuala.
- Zatikatzen eta enkriptatzen DLL liburutegia.

- Bouncy Castle osagai kriptografikoak.
- Javaren luzapen kriptografikorako fitxategiak.

Konfiguratzeko tresnak ordenagailu pertsonal bat elektronikoki lizitzatzeko ongi konfiguraturata dagoen egiaztatzeaz gain, eskaintzak zatikatu, enkriptatu eta bidaltzen dituzten funtzio informatikoen liburutegiak ere instalatzen ditu, baldin eta ez badaude.

Konfiguratzeko tresnara sartzeko Lizitazio Elektronikoren aplikazioan sartu eta hau sakatu behar da: "Lizitazio Elektronikoa", "Konfiguratzeko tresna".

Hemendik gutxira kontratazio elektronikoko espeditenteren batean lizitatu behar bada komeni da konfigurazio elektronikoa egiteko tresna erabiltzea.